

**PARTAIDETZA EREDUETATIK
ERAIKITZE KOLEKTIBORA**
**Kultura herrikoiak, ilusionismo soziala
eta jabe-gabetzea**

Javier Encina, Ainhoa Ezeiza, Lide Salbarredi, Irati Guridi
(koord.)

2. edizioa

EGUNEROKO BIZITZAREN AUTOGESTIOA 1

Donostia / Sevilla, 2015eko iraila

ISBN: 978-84-15602-12-5



Material hau edozein medio edo formatutan partekatu, kopiatu, berriz banatu eta egokitzeko askatasuna duzu, baldintza hauen pean:

- **Aitortu:** Autoreak eta lanaren iturria aipatu behar dituzu.
- **Berdin partekatu:** Edukien jatorrizko lizentzia bera erabili behar duzu materiala berrerabiltzean.

Argitaratzaileak:

Ilusionista Sozialen Mintegia
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
ilusionistasozialak@gmail.com
UNILCO-espacio nómada
Ilusionista Sozialen Kolektiboa
<http://ilusionismosocial.org/>

Inprimatzailea:

Celestino Illarramendi
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola
Oñati plaza 3, z.g., 20018 Donostia (Gipuzkoa)

Azalaren diseinua: Ainhoa Ezeiza, Bitiji-Toreador de Pájaros.

1. edizioaren argitaratzailea: Ikaskidetza Sarea-Gipuzkoako Foru Aldundia, Ilusionista Sozialen Mintegia (UPV/EHU).
Argitaratzaile eta inprimatzailea: Bitiji-Toreador de Pájaros. Baterako argitalpena: UNILCO-espacio nómada, Ilusionista Sozialen Kolektiboa.

Aurkibidea:

<i>JENDEAREKIN ETA JENDEARENGANDIK PARTE HARTZEN.</i> <i>SARRERA BAT.</i> Javier Encina, M ^a Ángeles Ávila, José A. Castro, Eva Escudero, Ana Karen García, Begoña Lourenço, Dresda Enma Méndez, Rubén Montaña, Carmen Pérez, Mónica Matilde Ramírez, Ángel Rodríguez eta Juan Manuel Zaragoza (itz.: Lide Salbarredi).....	5
<i>ILUSIONISMO SOZIALAREN PRINTZIPIOEN INGURUAN.</i> Javier Encina eta M ^a Ángeles Ávila (itz.: Itziar Rodríguez, Olatz Carreira, Ainhoa Ezeiza)	17
<i>KULTURA HERRIKOIAK.</i> UNILCO-espacio nómada (itz.: Irati Guridi, Aitor Errazkin)	50
<i>JABE-GABETZEA. SARRERA BAT.</i> Javier Encina eta M ^a Ángeles Ávila (itz.: Ainhoa Ezeiza)	78
<i>HIZKUNTZAREN JABE-GABETZEA.</i> Ainhoa Ezeiza, Nahia Delgado eta Javier Encina (itz.: Ainhoa Ezeiza)	100

Itzulpen guztien orrazketa: Ainhoa Ezeiza



Irudia: Ilusionista Sozialen Mintegia eratzeko topaketak prestatzen. Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Jendearekin eta jendearengandik parte hartzen. Sarrera bat.

Javier Encina, M^a Ángeles Ávila, José A. Castro,
Eva Escudero, Ana Karen García, Begoña Lourenço,
Dresda Enma Méndez, Rubén Montaña, Carmen Pérez,
Mónica Matilde Ramírez, Ángel Rodríguez
eta Juan Manuel Zaragoza.

Itzulpena: Lide Salbarredi

Azken 20 urteotan, maila teorikoan, esfortzu handia egin dugu sinpletik konplexura joateko (praktikan aurrerapauso bat eman dugu) eta 6 urte dira konplexutik xumera nola pasa pentsatzen gabiltzala, nola jakin gabe... Lan honen bitartez, aurrerapauso bat eman nahi izan dugu egite eta sentitzeetan argituta daukaguna teorian gauzatzeko. Beharbada, nahi izan duguna ez dugu guztiz lortu, baina hala ere, pentsamenduak, sentipenak eta egintzak bakoitza bere erritmoan konpatsatzeko bide berri bat ireki digu.

Gure lanaren gai nagusia bitartekaritza desiragarriak¹ dira, hau da, nola egiten/sentitzen/pentsatzen dugun nahi dugun mundua bizitzeko, alegia, nola autogestionatzen dugun gure eguneroko bizitza, nola egiten garen gure bizitzaren protagonista, eta zehatzago, zein diren besteekin erlazionatzeko sustatzen ditugun moduak –pertsonek eta taldeen artean– gure eguneroko bizitzari tranzendentzia emateko, geure beharrak asetzeko, gure trebetasunak geure komunitateko beste

¹ Gehiago sakontzeko honako gure bideo hau ikus dezakezu:
<http://vimeo.com/43623586>

jendearekiko jokoan jarriz. Bitartekaritzen² gaia lantzeko Jesús MARTÍN-BARBEROren lanek³ asko lagundu digute. Arazoa da bitartekaritza desiragarriez gain, **beste bi bitartekaritza mota** daudela (mundua egiteko/sentitzeko/pentsatzeko erak edo kosmobisioak, geure komunitatean kolektiboki eraikiak): **Inposatzen dizkiguten bitartekaritzak** (objektu, produkzio-bide edota pertsonen jabetza pribatua, kasu) eta **onartzen ditugun ditugun bitartekaritzak** (“*mediaciones consentidas*”), Merkatuak, Estatuak eta bestelako erakunde sozialek (familia, eliza, eskola e.a.) onartzera bultzatzen/eramaten gaituztenak (esaterako, opariak jasotzearen edota familiarekin bat etortzearen ezkontzen diren bikotekideak).

Borroka dialektiko horretan (kolektiboki eraikitzen den borroka dialektikoa, ideien debateen bidez, egiteak aurrez aurre jarriz eta bitartekaritza desiragarri, inposatu eta bere horretan utzitakoen arteko sentimenduak kontrajarriz) imajinarioak azaleratzen dira eta ezinezkoaren itxaropena pizten da.

“Jendea gehiago kontuan hartzen duen” partaidetza prozesu bat abiatu nahi badugu, pentsatu behar dugu ez garela lehenak izango halako zerbait egiteko ideia izan dugunak. Hiru era hauetan⁴ laburbilduko genituzke partaidetza prozesuak:

- Lehena, ordaintzen digunarengatik eta digunarentzat lan egitea litzateke (bidaltzen gaituenarentzat). Ez diogu ezer galdetu behar geure buruari, ezta inorekin lan egin beharrik

² Bitartekaritza mota ezberdinen inguruan Javier Encinaren eta Beatriz Luque-ren artikulua irakur dezakezu:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=158>

³ Bitartekaritza sozialen inguruan Jesus Martin-Barberoren testua irakur dezakezu:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=159>

⁴ Partaidetza moten inguruan, ikus ezazue Hiru Anaien Alegiaren bideoa: <http://vimeo.com/71911701>

ere; eskatu digutena egin behar dugu, ezarri dizkiguten edo geuk aldeztu aurretik ezarri ditugun helburuak bete besterik ez dugu.



Lalo Orozco-ren irudia

Azken finean, jendearengandik zerbait lortu nahi duen partaidetza mota da (informazioa, dirua, arreta etab.). Adibidez: Enpresa multinazional batentzat edo estatuko erakunde batentzat inkestak egitea, edo egoera sozial bati buruzko txosten bat egitea, alderdi politiko batentzat hauteskundeetako kartelak ezartzea, edo gobernu kanpoko erakunde zehatz batentzat edo mugimendu sozial batentzat dirua biltzea...

- Bigarrena, jendearentzat lan egitea izango litzateke. Ez diogu geure buruari ezer galdetu behar, aldeztu aurretik finkatu baititugu helburuak edo erantzunak aurkitu; geure proiektu barruan ez daudenekin ez dugu zertan lanik egin.

Jendeak behar duena ezagutzea eta ematea da gure zeregin bakarra.



Lalo Orozco-ren irudia

Praktikan, lehenengo partaidetza motaren antzekoa da, baina “jendearengan pentsatuz” lan egiten dugu, zerbait eman edo eskaini nahian.

Adibidez: “Jendearen beharren” diagnosi bat egitea eta azterketa honen ondoren, komunitateko jende behartsuarentzat jangela sozial bat antolatzea. Edo gose greba bat egitea gobernuak langabeziari buruzko politika alda dezan aldarrikatzeko.

- Hirugarrena, jendearekin eta jendearengandik lan egitea litzateke. Jendearekin lan egin behar dugu, bere eguneroko bizitzaren protagonista izatea nahi badugu, jendeak bere

bizitza autogestionatuko badu (beren kabuz gidatu). Horrela, prozesua abiatzen denetik aurrera, jendea izango da bere herria, auzoa, komunitatea... nolakoa izango den eraikitzen joango dena, proposamenak eginez, kolektiboki eztabaidatuz eta, taldeka, erabakitako proposamenak gauzatuz, modu dialektikoan⁵.



Lalo Orozco-ren irudia

Partaidetza prozesu bat hasi aurretik, jakin behar dugu zeri erreparatu behar diogun, eta batez ere “**erlazioatzeko moduetan**” jarri behar dugu arreta, hau da, egoera ezberdinetan jendarekin erlazioatzeko dauzkagun modu ezberdinetan.

⁵ Dialektikaren gaia gehiago sakontzeko, M^a Ángeles Ávilaren eta Javier Encinaren audioa entzun:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=457>

Edo ikus. Ignacio Fernandez Castro-ren artikulua:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=154>

Leku ezberdinetan gaudenean, gure jokaera ezberdina izan ohi dela ikusten dugu. Hau zergatik ote da?

Pentsatzen hasiz gero, konturatzen gara zenbait tokitan⁶ ordutegi eta erabilera jakin bat zehaztua daukagula: enpresa bat, eskola, etxe batera bisitan joaten garenean, saltoki-gunea... Horrelako tokiak **lurraldeak** dira, izan ere, erabilera jakin bat daukate (adibidez: aitak “nire etxean neuk agintzen dut!” esaten duenean, irakasleak ikasleak ikasgelatik kanpora bidaltzen dituzenean, poliziak norbait leku publiko batetik bidaltzen duenean). Gainera, **ordutegi** jakin bat daukate, hau da, ezin ditugu erabili nahi dugunean (adibidez, haurrak 9:00etatik 16:30ak bitartean doaz eskolara). Halako tokiek, jende arteko harremanak pobretu egiten dituzte eta kontsumo edota ikuskizun erlazioak izatea sustatzen dute, leku hauetan agintzen digutena egiten dugulako edota ikusle huts bihurtzen gaituztelako. Zenbat eta toki gehiago definitu horrela (eta gero eta leku publiko gehiago ari dira horrelako bihurtzen), hainbat eta pobreagoak eta interesatuagoak (instrumentalagoak) izango dira gure harremanak⁷

Badira, aldiz, gauza ezberdin asko egiteko erabiltzen diren lekuak, jendeak lekua era ezberdinetan erabiltzen duelako (adibidez, parke bat) edo talde berak erabilera ezberdina ateratzen diolako (*tiangis* edo kale merkatu informalak, esaterako); honelako tokiei **espazio**⁸ deritzegu. Eta leku hauek

⁶ Lurraldeak eta ordutegiak zein espazioa eta denbora bereizteko, honako esteka honi segi:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=156>

Raul Zibeichi-k ere lantzen du:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=157>

⁷ Marc Auge-k ere gai hau lantzen du, ez-lekuen ikuspegitik:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=392>

⁸ Espazioa modu partehartzailean ekoizteari buruz Manuel Montañes eta Julio Alguacil-en artikulua irakurri:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=169>

arretaz aztertzen baditugu, ikusiko dugu honelako lekuek ez daukatela ordutegirik ez zeregin finkorik; nahi dugunean sartu eta atera gaitzke, hau da **denbora** deitzen dioguna, ez baitugu ordutegi jakin batean mugatu beharrik elkarren artean erlazionatzeko. Espazioetan, pertsonen arteko bitartekaritzak hartzen du garrantzia. Aipagarria da jendeak ordutegiak denbora bihurtzeko joera izaten dugula eta lurraldeak espazio:

- Ikasgelan irakaslea iraitz aparatua lantzen ari den bitartean, geure ikaslagunari ea zer moduz joan zaion asteburua galdetzen diogunean.
- Lantokian geurekin batera lan egiten duen pertsonaren osasunaz kezkatzen garenean.
- Saltokigunera eroatera joan beharrean, paseatzera edota hitz egitera joaten garenean.
- ...

Jendea bere eguneroko bizitzaren protagonista izatea nahi badugu, konturatu behar dugu besteekiko harremanen bitartez hazi nahi dugula pertsona gisa, pertsona batzuk beste pertsona batzuekin topatuz, eta horrela modu askotara saretuz eta korapilatuz. Modu honetan asetzen ditugu gure beharrak eta horrela giza-eskala duen garapena eraikitzen dugu, Manfred MAX NEEFek⁹ planteatzen duen eran.

Zer diren beharrak eta asebetetzailerak¹⁰ galdetuko baligute, ez legoke erantzuteko arazorik, ez hitzez azaltzeko, ezta adibideak pentsatzeko ere. Zailtasuna dator pentsarazi nahi dugutenean giza-beharrak infinituak direla. Gainera, behar amaigabeen ideia hori sustatzen da kontsumo eroaren

⁹ Giza-eskalanen garapenean gehiago sakontzeko:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=167>

¹⁰ Geure bideoa ikus dezakezu: <http://vimeo.com/38051454>

gizartean, gehiago saltzeko, ezinbestekoa delako beharrak eta behar horiek asetzeko moduak (asebetetzailleak) nahastea.

Gizakion beharrak gutxi gorabehera unibertsalak dira, hau da, pertsona guztientzat berdinak dira. Desberdina dena da era desberdinetan asetzen ditugula behar hauek. Honako hauek izango lirateke:

- Bizi-iraupena (adibidez: osasuna, elikadura, lana...).
- Babesa (adibidez: zaintza, autonomia, familia...).
- Afektua (adibidez: adiskidetasuna, errespetua eta errespetatua izatea...).
- Ezagumena (adibidez: kritikotasuna, intuizioa, ikastea, meditatzea, gauza desberdinak probatzea...).
- Partaidetza (adibidez: proposatzea, erabakitzea, elkarrizketak izatea ...).
- Aisia (adibidez: umorea, erlaxatzea, ondo pasatzea...).
- Sorkuntza (adibidez: pasioa, borondatea, lana, ideiak izatea ...).
- Identifikazioa (adibidez: desberdintzea, zerbaiten parte sentitzea, baloreak ...).
- Askatasuna (adibidez: justizia, berdintasuna, senidetasuna, emakumekidetasuna...).

Gainera, behar bat asetu behar dugunean, kontuan izan behar dugu pentsatzen duguna, sentitzen duguna eta egiten duguna koherenteak izatea. Gizakion beharrak unibertsalak badira ere, behar hauek modu askotan ase daitezke; hau gure testuinguru sozialak eta kulturalak baldintzatu dezake, baina baita gure sormenak, gure aukerek, gure gaitasunek eta sentimenduek ere.

Asebetetzaille batek hainbat behar ase ditzake. Hobeto ulertzeko, adibide bat emango dugu: zure haurrari bularra ematen diozunean, haurrak aldi berean bizi-iraupen, afektu, babes eta identifikazio beharrak asetzen ditu.

Arazoa dator behar bat asebetetzaille batekin nahasten dugunean. Horixe gertatzen da “auto bat behar dut” esaten dugunean, autoa behar bat dela esaten ari gara; baina hori horrela pentsatzen badugu (autoa = beharra) hauxe gertatzen da:

- 1) Ezin dugula eztabaidatu nola asetu gure beharrak.
- 2) Kontsumismo konpulsiboaren atzaparretan erortzen gara.

Autoaren nahaste horrek kaltetu egiten gaitu: autoa bizi-iraupenaren beharra asetzeko erosi dugu, garraiatzeko modu bat edukitzea, alegia? Ala gure afektu-beharra asetu behar dugulako (ligatzea), edota identifikazio-beharra, status sozial jakin bateko pertsonen onarpena lortzeko?

Zer behar dugun argi izango bagenu, behar hura asetzeko modurik egokiena pentsatu ahal izango genuke, ze gerta liteke bizi-irauteko lan bat edukitzea eta pentsatzea auto bat izanez gero, denbora aurreztuko dugula lanerako bidean, eta gero lan-ordu gehiago egin behar izatea autoa ordaintzeko eta hala, hasieran baino denbora gutxiago izatea eta gainera, askoz larrituago bizitzea autoa erosi aurretik baino. Azkenean, autoa erosteko helburua ezerezean gelditzen da, hasierako beharra (denbora librea izatea) ez baita betetzen.

Puntu honetara iritsita, iradokitzen dugu ez hitz egitea pobrezia buruz, **pobreziei buruz** baizik, pluralean. Izan ere, singularrean hitz eginda, diru sarrera jakin batera iristen ez den jende multzoari buruz ari gara. Horregatik, pluralean hitz

eginda (pobreziak), argitzen dugu ez garela egoera ekonomikoaz ari soilik, alegia, hilabete bukaeran diru gehiago edo gutxiago edukitzeari buruz, egoki asebeteta ez dagoen edozein giza-beharren eskasiak erakusten duelako giza-pobrezia:

- Bizi-iraupenaren pobrezia: elikadura gabezia, beroki falta...
- Babesaren pobrezia: edozein indarkeria-era azaleratzen denean, gobernuaren dirulaguntzak edo bekak behar ditugulako autonomia galtzen dugunean...
- Afektuaren pobrezia: zapalkuntza politikoarengatik, autoritarismoarengatik, esplotazioarengatik...
- Ezagumenaren pobrezia: hezkuntzaren kalitate eskasarengatik...
- Partaidetzaren pobrezia: gizarteko talde jakin bat marginatzea (emakumeak, haurrak, minoriak diskriminatzearengatik adibidez), ...
- Identifikazioaren pobrezia: lekuko kulturaren balore ezezagunak inposatzearengatik, emigratzera behartuta egotearengatik, erbesteratze politikoarengatik...
- Askatasunaren pobrezia: opresioarengatik, erlazionatzeko toki faltarengatik...

Estatuak (bere askotariko esparruetan: udaletan, estatu eta federazio mailan, enpresa publikoetan e.a.), hainbat erakunde sozialek (hala nola: familiak, elizak, eskolak...) eta Merkatuak (besteak beste: enpresa pribatuek, banku pribatuek...) interes berezia dute gure gizartean geroz eta ordutegi eta lurralde gehiago egon daitezen, hartara, gehiago eta hobeto kontrolatuko gaituztelako. Beraien estrategia edukiak interesgune bilakatzea da (aldaezina, izatea, identitatea, izenaren etiketa), pertsonak izan beharrean (egotea, elkarrengana, harremanak).



María Clauss-en irudia.

Horregatik, interesgunea pertsonak izatea nahi badugu, **beraiekin eta beraiegangandik** lan egin behar dugu. Modu honetan lan egiteari **ilusionismo soziala**¹¹ deitu diogu. Hau sortu da partaidetzaren teoriak eta kultura herrikoiak eguneroko denbora eta espazioetan nahastuz, posible denaren segurtasunetik (ezartzen dizkiguten eta geure buruari ezartzen dizkiogun mugetatik) ezinezkoaren itxaropenerantz (desiratzen duguna eta lortu ezina dela uste duguna), eguneroko bizitzaren autogestio kolektiboaren bidez. Lan egiteko modu honekin, ezinezkotzat hartzen den horretara hurbiltzen gara, momenturo pentsatzen, sentitzen eta egiten duguna banandu gabe.

¹¹ Ilusionismo soziala lantzeko, honako gure bideoa ikus dezakezu:
<http://vimeo.com/4944253>

Autogestio kolektiboa¹² eraikitzen jarraitzeko (nahitaez jabe-gabetzearen bidez egin behar duguna, hau da, zenbait egoeratan eduki dezakegun boterearen uztea egin behar dugu), honakoa da beharrezkoa:

- Lehenik eta behin, kolonizazioari **erresistentzia** jartzea gure egunerokotasunean, hala nola: Merkatuari, Estatuari eta bestelako erakunde sozialei.
- Bigarrenik, **haustura sortzailea** eragitea, jende berriarekin biltzeko proposamen berriak egiteko.
- Azkenik, **partaidetzarako bideak** egokitzea, bai deialdiak egiteko erak (asanbleak eta bilerak) bai biltzeko erak (espazio eta denboretan¹³ oinarrituak).

¹² Eguneroko bizitzaren autogestioa lantzeko, bideo hau ikusi:
<http://vimeo.com/30369018>

¹³ Egunerokotasunean sakontzeko, Michel De Certau-ren testua irakur dezakegu: <http://ilusionismosocial.org/mod/page/view.php?id=383>